

## Xabier Erkiziaren testua:

"Musikak ez du espazioa betetzen, espazioa sortu egiten du "  
*Ernst Bloch, Zur Philosophie der Musik, 1972*

Egunero bizitzen ditugun espazioen entzunaldi erneak lekuak beste modu batera entzuteko, eta beste ikuspegi batetik ezagutzeko aukera eskaintzen digu. Soilik entzulearen jarreraren bidez, zaratak musika bihurtu daitezke, espazio hutsak soinuz betetako mundu aberats eta ezezagunak, eta elementu arkitektonikoak musika tresna. Entzumena beraz, gure ingurunean kokatzeko zentzu erabilgarria izateaz gain, lekuak eta egoerak berriz ezagutzeko tresna ezin hobea da, hormek gordetzen dituzten sekretuak, tartean musikak, errebelatzeko lanabesa. Izan ere, soinuek edo musikak zentzua galtzen dute espaziorik ez dutenean, eta espazioek dimentsioak galtzen dituzte soinurik ezean. Batak bestearen beharra du nortasun edo izaera jakin bat eraikitzerako orduan. Luigi Nono konposatzaile italiarrak modu argian azaltzen du erlazio banaezin hau: "*Soinuak espazioa irakurtzen du, eta espazioak soinua azaltzen*"

Eta behin besteen hitzak biltzen hasita, Alvin Lucier izeneko bertze konposatzaile eta soinu-artista, kasu honetan iparramerikar batenak gogora ekartzea merezi du. Honela dio berak: "*Gela bakoitzak bere melodía gordetzen du, norbaitek edo zerbaitek entzungarri egiten duen arte*"

Espazioa eta soinua ukiezinak diren bi materia dira, irristakorrak eta iheskorak bezain beharrezkoak gure bizitzarako. Eta beharbada horregatik moldatzen ditugu gure beharretara, Erakusketa honen bidez Tabakalerako hormek gordetzen duten musika azaltzen saiatuko gara, edo nahiago baduzue soinu bidez eraikina bera irakurtzeko, ezagutzeko modu berri proposatuko dugu. Horregatik eta horretarako soinuak gidatutako ibilbide bat sortu dugu, soinudun arteari eskainitako erakusketa bat izateaz gain Tabakalera bezalako nortasun handiko eraikuntza bat ezagutzeko aukera ematen duen gonbidapena.

Azken finean, soinuak dituen forma eta izaera ugarien bidez, Tabakalerak gordetzen dituen itxura eta forma arkitektonikoak ezagutzeko aukera sortu dugu.

Orain soilik erne entzuten hasi behar dugu, ez da gutxi.